

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

156/2018 Foru Agindua, Ingurumen eta Hirigintza diputatuarena, maiatzaren 14koa. Haren bidez, Olabarriko hondakin uren isuriak Iruña-Okako eskualdeko HUAra konektatzeko proiektuaren egitasmo aldaraziaren ingurumen eraginaren txostena formulatzen da

“Olabarriko hondakin uren isuriak Iruña-Okako eskualdeko HUAra konektatzeko proiektuaren egitasmo aldarazia” ingurumen eragin sinplifikatuaren ebaluazioaren pean dago; izan ere, aipatutako proiektu hori Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko 3/98 Legeak bere I C eranskinean jasotako kasuetariko batean sartzen da, egin-eginean ere ingurumen eraginaren ebaluazio sinplifikatuaren prozeduraren peko obren edo jardueren zerrendan (2.7 azpitaldea, “lehen mailako sareko hondakin urak garraiatzeko instalazioak). Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legeak arautzen du prozedura.

Arabako Foru Aldundiaren Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak, lehen aipatutako dokumentazio hori jaso ondoren, hasiera eman zion ukitutako administrazio publikoei eta pertsona interesdunei kontsulta egiteko faseari, 21/2013 Legearen 46. artikuluan ezarritako eran.

Ingurumen eta Hirigintza Zuzendaritzak eskatuta, Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak 2018ko maiatzaren 10ean emandako ingurumen txosten estrategikoan ezarritako ebaluazioa, zehaztapenak eta baldintzak jasotzen ditu foru agindu honek. Foru agindu hau egitea eta ALHAOn argitaratzea bat dator 21/2013 Legearen 47. artikuluko hirugarren zenbakian jasotako xedapenekin.

1. Proiektuaren ezaugarrien laburpena. Ebaluatu nahi den eremu geografikoa. Aukerak

1.1. Proiektuaren ezaugarriak:

Proiektuak beharrezko jarduketak zehazten ditu Olabarriko gunearen gaur egungo saneamentua Iruña-Okako hondakin uren araztegiarekin konektatzeko, ur horiek araztegi horretan tratatuak izaneta Santa Marina erreka (edo Errotaren erreka) gaur egungo isuriak desager daitezzen.

Proiektu honek Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailaren Obra Hidraulikoen Zerbitzuak 2009an zehaztutako proiektua aldarazten du; izan ere, orduko egitasmo horretan aurreikusten zen gaur egun Olabarriko isuriak tratatzen dituzten putzu septikoak hondakin urak ponpatzeko estazio baten ordez aldatzea, urak Iruña-Okako HUAra bultzatzeko. Proiektua baliatuz, trazaketa horretarako bestelako aukerak aztertu dira; besteak beste, grabitate kolektore bat egitea aztertu da, sarea mantentzeko kostuak murrizteko. Halaber, bestelako trazaketa alternatiboak ere aztertu dira.

Azkenik hautatu den proiektuan kolektore nagusi bat jasotzen da, gutxi gorabehera 1.355 metro luze dena; kolektore hori 315 mm-ko diametroa izango duten PVCzko hodiez egingo da luzera osoan, hustubidean izan ezik, bertan diametroa 500 mm-koa izango baita. Sakonera txikiko zangen bidez egingo da.

Kolektore horretaz gain, bigarren mailako beste bi kolektore aurreikusten dira, putzu septiko zentrala eta ekialdekoa batzeko, 57 eta 19 metroko luzerekin, hurrenez hurren. Gutxieneko aldapa ehuneko 1ekoa izango da, autogarriketa bermatzeko.

Aurreikusitako trazaketaren bidez, “Santa Marina” erreka (“Errotaren erreka”) zeharkatzeko bidegurutzea behar da, ibilguaren azpian metro batekoa eta A-2622 errepidea libratzeko “hinka zuzendua” izango duena. Olabarriko irteerako bideraketa errotaren erreka ondotik iragango dela aurreikusten da.



1.2. Geografia eremua:

Proiektua Iruña-Oka udalerrian garatuko da, Olabbarri eta Langraiz Okaren artean. Ukituko den eremua oso antropizaturik dago, bertan biztanle edo eraikuntza guneak, komunikazio bi-deak, errepideak eta nekazaritza guneak daudelako. Lehenengo tartean jarduketa Santa Marina errekan ondotik iragango da.

1.3. Aztertutako aukerak:

Bost aukera aztertu dira: horietariko bat inpulsiokoa da eta lau grabitatekoak:

- 1. aukera: Olabbarriko inpulsiakoa.
- 2. aukera: Grabitatea inpulsioren trazaketan.
- 3. aukera: Grabitatea Santa Marina errekan.
- 4. aukera: Grabitatea A-2622 errepidean.
- 5. aukera: Grabitatea errekan eta lursailetan.

Inpulsioren irtenbidea baztertu da, kostu ekonomikoa eta gastu energetikoak handiak baitira. Trazaketa, azken batean, inpaktuari dagokionez hartutako neurriaren antzekoa da; hala ere, udalaren arau subsidiarioen agirian azaltzen den irtenbidean nekazaritza lurren gaineko inpaktua txikiagoa da, baina zangaren luzera nabarmen handitzen da eta harekin batera sor daitezkeen inpaktuak ere.

Bigarren irtenbidean, hau da, inpulsioren trazaketatik grabitatean oso zanga sakonak behar dira, bai eta "gainzangak" ere; horrek oso inpaktu handia izango luke nekazaritza lurretan. Kostu energetikoa txikiagoa da aurreko irtenbidean baino, baina burutzapen kostua askoz handiagoa.

Bestalde, 3. aukerak bere ibilbidea egokitzen du Santa Marina erreka aldera. Ibilbidea luzeagoa da hautatutako aukeran baino eta inpaktua handiagoa eremuaren ingurumen kalteberatasun handieneko gunean, hau da, errekan.

Halaber, 4. aukeran ibilbidea A-2622 errepidera egokitzen da, foru errepidearen gainzabaleratik zehar. Luzera trazaketa aukeratuak duenaren antzekoa da, baina zangaren sakonera askoz handiagoa da, 9 metrora iritsiz; beraz, "gainzangak" behar ditu eta horrek luraren okupazio handia dakar. Trazaketa honetan potentzialki kutsaturik dauden lurak ukitzeko arriskua dago.

Azkenik, 5. aukerak kolektoreen luzera apala du eta zangen sakonerak 1,5 eta 2,5 metro artekoak dira. Nekazaritza lurren gainean egon daitezkeen ukipenak erraz konpon daitezke. Eraikuntza proiektua garatzeko orduan, irtenbide honen alde egin da, sustatzailearen iritziz kontsiderazio tekniko, ekonomiko eta ingurumen aldetik egokienak baititu.

2. Kontsulta fasearen laburpena

Jarraian, kontsultatu zaien erakunde, entitate eta elkarten zerrenda jarri da, eta haietatik zeinek erantzun duen adierazi da:

| | |
|--|---|
| URA – Uraren Agentzia | √ |
| Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritza | √ |
| Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritza | √ |
| Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritza | |
| Arabako Natur Institutua | |
| Ekologistak Martxan Araba | |
| GADEN - Natura Babesteko eta Ikertzeko Arabako Taldea | |
| Eguzki talde ekologista | |
| Hontza | |
| GAIA elkarte | |
| Gasteiz Zero Zabor | |
| Arabako Mendi Federazioa (Ingurumen Atala) | |
| UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkarte | √ |
| IHOBE - Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa | |
| Arabako Kontzejuen Elkarte. | |
| SEO Birdlife | |
| Iruña Okako Udala | |
| Olabarriko Administrazio Batzarra | √ |
| Añanako Kuadrilla | |
| Arabako Foru Aldundiko Mendi Zerbitzua | |
| Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzua | √ |
| Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Kalitatearen Zerbitzua | |
| Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzua | √ |
| Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritza | √ |

Hona hemen jaso diren erantzunetan adierazitakoak, laburbilduta (alegazio edo adierazpenen kopia osoa Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuaren 18/6 espedientean eta www.araba.eus web orrian daude jasota):

- Arabako Foru Aldundiko Museo eta Arkeologia Zerbitzuak bere txostenean zehazten du proiektuaren eremuan ez dela hondakinik edo egitura arkeologikorik ezagutzen. Edozein kasutan ere, obran aurkikuntza arkeologikorik atzeman ez gero, berehalakoan jakinarazi beharko zaio Arkeologia Museoari, dagokion bezala jardun dezan.

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Zuzendaritzak bere txostenean zehazten du proposatu-tako trazaketa nekazaritza erabilerako lursailetatik zehar igarotzen dela gehienbat, zehatzago lehorreko laborantzarako lurak. Azalera zatirik handiena "balio estrategiko handikotzat" jotzen da nekazaritza eta basogintzako LPSn; hori dela eta, nabarmentzekoa da abenduaren 23ko 17/2008 Legeak, Nekazaritza eta Elikagai Politikari buruzkoak, bere 16. artikuluan egiten duen arauzko erreferentzia. "Balio agrologiko handikotzat jo diren lurretan –hau da, euskal landa-eremua antolatzeke unean-unean indarrean dagoen erreferentzia-esparruan ezarritako definizioarekin bat hala definitu diren lurretan– egitekoa den edozein proiektu edo ekintza administratibok nekazaritza-gaietan eskumena duen foru-organoaren txostena ere izan beharko du". Zentzu honetan, Ukipen Sektorialeko Ebaluazio Protokoloa (USEP) erantsi da; agiri horretan, azterketa zehatza egin ondoren, honako neurri hauek hartzeko eskatzen da:

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Garapeneko Zerbitzuaren txosten teknikoa eskatu beharko da landa bideei eragin ahalko dieten edozein jarduketa egin aurretik.

- Obrak gauzatu bitartean luraren profil emankorra babesteko ahaleginak egingo dira, ahal den neurrian kutsa ez dadin edo beste aukera batzuekin nahas ez dadin. Hodiak kokatu ondoren, lurak moduan egokian lehengoratu beharko dira, geruza emankorra besteen gainean gera dadin.

- Arabako Foru Aldundiaren Historia eta Arkitektura Ondarearen Zerbitzuak zehazten du trazaketaren inguruan, hain zuzen, Santa Marina erreka A-2622 errepidearekin bat egiten duen elkargunean, Olabarriko errota zehazturik dagoela, gaur egun aski hondaturik dagoena. Horrexegatik ondorioztatzen da egin beharreko obrek kontuan hartu beharko dituztela errotaren hondakinak, betiere kultura ondare arkitektoniko honen elementuari gaitz-kalterik ez egiteko.

- Eusko Jaurlaritzaren Kultur Ondarearen Zuzendaritzak zehazten du bidalitako dokumentazioa aztertutik eta gaur egun Kultura Ondareko Zentroak duen dokumentazioa kontsultatutik jakinarazten duela ez duela aurkitu ukipen eremuan kultur ondare gisa sailkatutako elementurik.

- UAGA - Arabako Nekazari eta Abeltzainen Elkarteak bere txostenean ondorioztatzen du proiektua gauzatzeko irtenbide gisa 4. aukera hautatu beharko litzatekeela, artifizializazioak aprobetxatzen dituelako eta eremuan eta nekazaritza eta basogintza jardueran inpakturik txikiena duen aukera delako.

- Eusko Jaurlaritzako Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak, proiektuaren laburpena egin eta sustatzaileak bidalitako ingurumen azterketan antzemandako gabeziak baztertuta, proiektuan sartu beharreko zenbait neurri zuzentzaile jasotzen ditu:

- Obrek aldi batez ukitutako gunek guztiak lehengoratu beharko dira. Laborantza lurri dagokienez, azaleko lur begetalaren geruza lehengoratu beharko da; orobat, Santa Maria erreka ibarrean (ez bakarrik bidegurutzearen eremuan, baizik eta ibaiaren paraleloan igarotzen den bideraketa tartean, JPHTik zehar igarotzen den tartetan) birlandaketak egin beharko dira zuhaitz eta zuhaixka espezie autoktonoak erabiliz (betiere bideraketa kolokan jartzeke), ahal dela, makalak edo zumeak (92A0 komunitate intereseko habitata, *Salix alba* eta *Populus alba*-ko galeria basoak).

- Landaketa trinkoetako markoak gomendatzen dira, marren birjarpenera murrizteko (adibidez, 4x4 zuhaitzetara eta 2x2 zuhaixketarako).

- Birjarpenerako berme epea ezarriko da; epe horretan marren birjarpenez gain, landareak behin betiko errotu arteko beharrezko urreztateta eta ongarriketara bermatu beharko dira.

- URA – Uraren Agentziak, proiektuaren laburpena eta azterketa egin ondoren, zenbait kontsiderazio ere egin ditu:

- Jabari publiko hidraulikoaren eta haren babes guneen babesari dagokionez: sustatzaileak aurkeztutako ingurumen dokumentuaren 14. eranskinaren 7.9 atalean azaltzen diren kautelak positiboki baloratzen dira; hala ere, ezinbestean men egin beharko zaio baimen administratiboak zehazten duenari.

- Uholde arriskuari dagokionez: proiektuaren ezaugarriak direla eta, ez da aurreikusten ibilguari ukipen esanguratsurik egingo zaionik, ez eta uraldiko korronteei ere, betiere indarreko arautegi sektoriala aintzat hartuz.

- Saneamenduari dagokionez: Proiektuaren etekinak nabarmentzen dira, gaur egungo egoerari dagokionez.

- Olabarriko Administrazio Batzarrak euri uren kolektoreetako sarearen plana erantsi du; bertan azaltzen dira Olabarriko biztanle gunean gaur egun dauden euri kolektoreak, informazioa kontuan har dadin.

- Ana Maria Saenz de Ormijana López de Armentia andre partikularrak alegazio bat egin du; horretan zenbait ohar egin ondoren, gehienbat funtsezko prozeduraren izapidetzeari dagozkion zenbait gai eskatzen eta azaltzen ditu, gehienak Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuari jakinarazitakoak; horien artetik ingurumen eraginei dagokienez, honakoa da nabarmentzekoa:

- Alegaziogileak adierazten du ez datorrela bat proiekturako hautatutako aukerarekin, haren iritziz, egokiagoa bailitzateke trazaketa titulartasun publikoko lurretatik igarotzea.

3. Eragina jaso lezaketan elementuetatik zeintzuk diren ingurumen balio handienekoak. Ingurumen eragin nagusiak

Proiektuaren ondoriozko ingurumen eragin nagusiak honako eremuetan aurreikusten dira: landatutako lurren gainean, Santa Marina edo Errotaren errekaen ibarreko landaretzaren azalera murriz baten gainean eta azaleko uren kalitatearen gainean. Inpaktu horiek sustatzaileak prestatutako ingurumen agirian azaldu eta baloratu dira, zehatzago ingurumen inpaktuak identifikatzeko eta ebaluatzeko 6. atalean. Jarraian, ingurumen eraginak laburbiltzen dira eta txosten honen hurrengo ataletan ingurumen agiriak jasotako neurri babesle eta zuzentzaile osagarriak hartzearen alde egiten da.

| Inguruneke elementu / eremu ukitua | Deskribapen laburra |
|--|---|
| Nekazaritza lurren okupazioa eta produktibitatearen galera | Proiektuaren xedea den eremuaren zatirik handienean balio agrologiko handiko lurzorua dago. Lurren gaineko ukipen hori obra fasean izango litzateke eta zangen indusketek, obretarako pistek, obren instalazio osagarriak eta materialen metaketek eragingo lukete. |
| Santa Marina erreka inguruan dagoen landaretza | Diseinatutako sarerik handiena nekazaritza lursailetatik eta bidezidorretatik zehar iragaten da; hala ere, Santa Marina errekaen ibarretatik hurbil dauden tartean zuhaixka autoktonoei eragin ahalko zaie, ez bakarrik erreka zeharkatzeko zatietan, baizik eta kolektorea errekaen paraleloan igarotzen den eremuetan ere, Olabarri herriko irteeraren hasierako tartean. |
| Azaleko urak | Obra fasean, lurren mugimenduak eta makinariaren igarobideak ukipenak eragin ahalko zaizkio uren kalitateari (suspentsioko solidoen igoera, nahi gabe egindako isurketak, etab.). Ustiapen fasean Santa Marina erreka uren kalitatea hobetuko litzateke, gaur egun Olabarri inguruan Santa Marina errekan izaten diren hondakin uren putzuak saihestuko bailirateke. |

Ingurumen osagai horien gaineko inpaktuak moderatuak izango direla aurreikusten da.

4. Ondorioak. Ingurumen baldintzak

Aurreikusten da "Olabarriko hondakin uren isuriak Iruña-Okako eskualdeko HUAra konektatzeko proiektuaren egitasmo aldarazian" jasotako jarduketaren burutzenak ez duela ingurumen inpaktu garrantzitsurik eragingo; gainera, ustiapen fasean eragin onuragarria izango du uren kalitatearen gainean, baldin eta proiektua egokitzen bazaie sustatzaileak ingurumen eraginaren ebaluazio sinplifikatuaren ingurumarian aurkeztutako dokumentazioan azaltzen diren jarduketei eta atal horretan jasotako ezarpenak oso-osorik errespetatzen badira.

Sustatzaileak ondorio negatiboak saihesteko, murrizteko eta konpentsatzeko proiektuan jaso behar dituen neurriak jarraian aipatu dira, sustatzaileak prestatutako ingurumen dokumentuaren 7. atalean jasotakoez gainera:

A) Santa Marina errekastotik hurbilen dagoen jarduketa eremuan ahalik eta dimentsiorik txikiena izango duen kalea egiteko ahaleginak egingo dira, gehienez 6 metrokoa, betiere ibilguan eta inguruko landaretzan ukipenak saihestuz.

B) Biltzailea jartzeko zangari dagozkion hondeaketa jarduketak modu hautatuan egingo dira, lurzoru horizonte desberdinak zorrotasunez batuz eta bereiziz; ondoren luraren jatorrizko profila birmoldatuko da, lanak egin aurreko egoerari dagokionez.

C) Hondalanetan, landare lurrezko geruzak modu selektiboan kenduko dira. Ahal dela, berehala birbanatuko dira edo, hori ezinezkoa bada, metatu egingo dira. Halakoak ibaiaren uholde arriskurik handieneko eremutik kanpo metatu beharko dira (10 urteko birgertatze aldia), eta gehienez 3 m-ko altuerako ebakidura trapezoidaleko multzoak egin beharko dira, lurra ez trinkotzeko. Landutako nekazaritza eremuetan landare lurhari dagokionez, landutako luraren lurzorua horizonte profilak modu fidagarrian lehengoratu beharko dira, lanak egin aurreko egoerari dagokionez. Ibarreko eremuetan (ibarreko landareta duen edo potentzialki izan lezakeen eremu ez-landatuetan), lur begetalaren xedea izango da obrak ukitutako azaleretan landareta eta lurzorua lehengoratzeko lanak egitea. Behar izanez gero, lehengoratzetan gutxienez 40 cm-ko lodiera bermatzeko helburuaz, landare lurra ekarriko da kanpotik.

D) Landatutako nekazaritza eremuan kolektorearen bideraketa instalatzeko sakonerak bermatu beharko du hodi horri ez diola inola eragingo laborantzarako eta luraren prestaketarako egin beharreko sakoneko landaketak.

E) Jasotako lan guztiak amaitu ondoren, jarduketa eremua garbitzeko fasea barne, birlanaketak egingo dira eta horretarako zuhaitz eta zuhaixka espezie autoktonoak erabiliko dira kolektoreak Santa Marina erreka zeharkatzen duen guneeetan, bai eta bideraketa tarte batean ere, hain zuzen, gaur egungo bidearen eta Santa Marina erreka artean kokaturik dagoen 6 metroko zati batean erreka paraleloan igarotzen den bideraketa tartean. Landareberritzeko lan horiek egiteko, honako irizpide hauei jarraituko zaie:

– Lurraren destrinkotze, moldatze eta taxutzea, lur naturalarekiko igarotze eta ukipen guneeetan behar bezalako doiketa eta egokitze fisiografikoa lortzeko.

– Kalitatezko landare lur geruza bat ematea, gutxienez 0,4 metrokoa, eta ondoren ukituak ematea.

– Lur lantze eta lur harrotze lanak egitea, eta ondoren fintzea, behar bezala prestatzeko azalerak, ereite eta hidroereiterako.

– Ereite edo hidroereite bidez belarki estalkia ezartzea, landare estalki naturala duten eraginpeko zonetan. Horretarako zopizar espezieak erabiliko dira, gramineoen eta lekadunen nahaste bat, eragina jaso dezakeen eremuko baldintza klimatiko eta edafikoetarako egokia.

– Egindako lanak paisaiaren aldetik integartzeko landaketak egitea, zuhaitz autoktonoak ukituak izan diren eremu guztietan:

Zuhaitz eta zuhaixka espezieak. Ukitutako ibarretan ohikoak direnak: makalak (*Populus alba*), lizarrak (*Fraxinus excelsior*), zumeak (*Salix atrocinerea*, *Salix alba* eta *Salix purpurea*), hurritza (*Corylus avellana*), zuhandorra (*Cornus sanguinea*), elorri zuria (*Crataegus monogyna*), etab.

Zuhaitzak: Ontzian aurkeztutako aleak, 0,60 m-tik 0,90era, izerdi bat edo bikoak eta sustraia-
ren lepoan gutxienez zentimetro batekoak. Bi edo hiru metroko distantzia landareen artean. Zuloaren gutxienerako dimentsioak: 0,5x0,5x0,6m.

Zuhaixkak: 0,5 metroko garaiera izango duten aleak. Metro bateko distantzia landareen artean. Zuloaren gutxienerako dimentsioak: 0,4x0,4x0,4m.

Behin zuloa kalitatezko lurrez estali ondoren, azaleran 40 cm-ko radioa eta kabailoian 10 cm-ko garaiera izango dituen txorko bat egingo da eta ureztatu beharko da (40 l/landareko). Askatze moteleko ongarrria erabiliko da, 100 gr/ale, baita ongarrri organiko konpostatuko kilo bat ere.

Landare guztien oinarrian belarraren aurkako oinarrizko babes bat jarriko da, "Horsol" motakoa, berde kolorekoa, 110 gr/m², 1 metroko zabalera osokoa, 20 cm lur azpian jarriz alde bakoitzean, ainguratzeko. Landare guztietan 60 cm-ko garaiera izango duen "Tubex" motako babesgarriak jarriko dira, bai eta akaziako tutore bat ere.

Landaketa garaia: abendua-otsaila.

Landaketen osoko mantenua. Haren baitan sartzen da ur defizitako aldietan ureztatzea, ureztaketa bakoitzean landareko 12 l ur emanez eta lehen ureztaketan bakarrik landareko 100 gr NPK ongarrri kimiko konplexu erantsiz ureztaketa urari. Baita ondoztatzeak, saratzeak eta jorrraketak, beharrezkoak izanez gero, eta eraketako inausketa bat eta adar hilak eta xurgatzaileak kentzea, eta zurkaitzak eta oinarriko babesgarriak berritzea ere.

F) Santa Marina erreka-eremuan erabat debekaturik dago zerbitzu guneak, makineria eremuak eta produktu kutsagarrien biltegiak ezartzea.

G) Erabat debekatuta dago jarduketak egitean sor litezkeen hondakinak eta landare hondarrak isurtzea. Halakoak baimendutako hondakindegira batera eraman beharko dira, eta bidezkoa bada, hondakinen kudeatzaile baimendu batek eraman beharko ditu. Lanak egiteko eremuan lubrifikatzaile edo erregaiak biltegitatu behar badira, obrak egiteko epealdian edukiontzi estankoak, iragazgaiztutako biltegiak edo beste sistema alternatibo batzuk prestatu beharko dira (betiere lixibatuak biltzeko sistemak dituzten gainazal iragazgaitzen gainean), eta debekatuta dago jada erabilitako lubrifikatzaile edo erregaiak isurtzea, halakoak kudeatzaile baimendu bati entregatu behar baitaizkio.

H) Proiektuaren obrak egin bitartean ez zaio ukipenik eragin beharko "Olabarriko Errota" kultura ondare arkitektonikoaren elementuari.

I) Obrak bukatu ondoren garbiketa kanpaina zorrotza egingo da. Proiektuaren eraginpeko eremuan ez da inolako obra hondakinik geratu beharko, eta obrako instalazioak erabat eraitsi beharko dira.

J) Ur Zerbitzuak eta Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbitzuak modu koordinatuan garatu beharreko ingurumen arloko jarraipen lana egitea egokitzat jo da, obra fasean zehar, aplikatutako ingurumena lehengoratzeko neurrien eta neurri zuzentzaileen eraginkortasuna jakiteko eta aztertzeko, eta gabeziak gertatuz gero, horiek zuzentzeko. Lanen eta, ondoren, lehengoratzeko ingurumen arloko lanen ingurumen jarraipen egokia egiteko, lanak hastearen berri emango zaio Ingurumen Jasangarritasunaren Zerbituari, lanok hasi baino gutxienez 15 egun lehenago.

XEDATZEN DUT

Lehena. "Olabarriko hondakin uren isuriak Iruña-Okako eskualdeko HUAra konektatzeko proiektuaren egitasmo aldarazia"ren ingurumen eraginaren txostena formulatzen da.

Bigarrena. Abenduaren 9ko 21/2013 Legea, ingurumen ebaluazioarena, betetzeko, ingurumen inpaktuaren txostenak ingurumen erabaki loteslearen ondorioak izango ditu proiektua gauzatzeko neurri eta baldintzei dagokienez.

Hirugarrena. Ingurumen inpaktuaren txosten hau ALHAOn argitara dadila agintzea.

Gasteiz, 21018ko maiatzaren 14a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO

Ingurumen eta Hirigintzako zuzendaria
AMAIA BARREDO MARTÍN